

Ama Guadalupe jaietan giro ona

Herriar ugari bildu da asteburu honetan, Uzturre plazan, Ama Guadalupe Extremadura erkideko zaindariaren eguna ospatzeko burutu diren ekitaldietan.

Ostirala gauean, ikurrina jarri zuten elkartearen kanpoaldean eta Extremadurako gorazarrea entzun ahal izan zen.

Hainbat herritar bildu ziren eta. Lasarte-Oriako udal ordezkarienez gain, aurten Fernando Solís Cacereseko Gobernuordezkariordearen presentzia ere izan zuen ekintza honek.

Herri afariaren ostean, umorea eta koplaren txanda

iritsi zen *Franquete eta Felisa*-ren eskutik.

Adin guztientzako ekintzak

Haurrek jolasak eta marrazki lehiaketa; helduek, berriz, dantza lehiaketa, karta joko lehiaketak, bazkari eta afari herrikoiak eta emakumeek, bolo txapelketa.

Ekitaldi ugari egon dira bi egun hauetan eta ikusle eta parte hartzaile kopurua handia izan da.

Hauetaz gain, doinu eta dantzen emanaldia ikusteko aukera egon zen larunbata arratsaldean, Nafarroako Extremadura etxeko *Raices* y *Brotos* taldearen eskutik. •



Haurek ederki gozatu zuten Extremadura etxeko lagunek prestatutako jolasekin, hala nola, aulkien jokoarekin.



Larunbata arratsaldean, *Raices* y *Brotos* taldeak folklorea ekarri zuen plazara.



Igande arratsaldean, euria ere festara batu zen. Bola jokoan eta tokan aritu ziren herritarrek aurre egin zioten eguraldiari.



Iban Mayoz txirrundulariak Tourreko erorketa eta beste kontuak azaldu dizkigu /3

GIZARTEA/6

Memoriaren Eguna datorren azaroaren 10ean ospatzea erabaki du Udal Batzarrak



Porrotx pailazoa Palestinan izan da Euskal Kultur Brigadarekin batera /4-5

BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoa baratxuritan-Baserri pate
Odolkia- Solomo ontzutua
Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak



Txistorra Basurde burua

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

MATRIKULA ZABALIK UDAL EUSKALTEGIAN

Euskara ikasteko bide zuzena www.udaleuskaltegiak.net

ESKAITZA ZABALA


- Euskalduntzea eta alfabetatzeko maila guztiak
- Tutoretza eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko plangintza
- Auto-ikaskuntza

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Hizkun eskakizunak eta HABEren 1., 2. eta 3. mailak (EGA).
- Titulu homologatuak

ERABILERA BULTZATZEKO EKINTZAK

- Solaskide: herriko euskaldunekin mintza praktika egiteko.



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
Bekokale bidea, 1
20 160 LASARTE-ORIA
Tf: 943 36 16 21

www.lasarte-oria.eu/html/25/348.shtml
euskaltegia@lasarte-oria.org

UDAL EUSKALTEGIAK

Matrikulaldia: irailaren 17ra arte // Bulego orduak: 08:30 - 19:15

PILOTA

Intza K.E.-ren pilota eskola lanean hasiko da ostegunean

Intza K.E.k jakin arazten du, pilota eskolak, hau da, alebin eta benjamin mailako haurrek ostegunean, hilaren 16an, hasiko dituztela entrenamenduak, 18:30ean Villa Mirentxuko trinketean.

Hitzordu honen ostean, pilota eskolako entrenamenduak astearte eta ostegunero 18:30etik 20:30era izango dira trinketean.

Hala ere, arduradunek jakitera eman dutenez, Loidi-Barreneko lanak amaitzean, entrenamenduak frontoi berria izan daitezela saiatuko dira.

Gonbita

Intza K.E.ko arduradunek Lasarte-Oriako haur, gazte edo hauen gurasoak Michelingo kirol guneko frontoira hurbildu daitezela animatzen dituzte, ostegunetik aurrera, izena eman, edozein galdera egin, maila desberdinetako entrenatzaileak ezagutu edo ikasturtean zehar egingo diren ekintzen berri izateko. •

Jon Tecedor beka sortu da

Halterofilian etorkizun handiko kirolariei laguntzea du helburu

Lehenengo osteguneko Udalbatzarrean Jon Tecedor beka sortzea erabaki zen.

Jesus Zaballos alkateak azaldu duenez, "iaz, San Pedroetan Jon Tecedorri egindako omenaldian sortu zen ideia eta orain martxan jartzea erabaki dugu".

Halterofilia bultzatu

Gutxien kirola izanik, gutxi egiten dutena alegia, halterofilia Euskal Herrian bultzatzea du helburu Lasarte-Oriak sortu duen dirulaguntza honek.

Baina horretaz gain, "Jon Tecedorrek kirol horretan izan zuen garrantzia Euskal Herriko txoko guztietara eramango du, baita gure herriaren izena ere" aipatu zuen alkateak.

Era honetara, Lasarte-Oriako Udalak bekak denboran zehar irauan dezan espero du.

Diru laguntza

Halterofilian etorkizun handia duten kirolari federatuak eskatu dezakete dirulaguntza hau. 2010-2011 denbo-



Arg: Tecedor familia

Jon Tecedor halterofiloaren izena daraman beka sortu du Lasarte-Oriako Udalak.

raldian, Laguntzaren zenbatekoa 1.200 eurotakoa da eta Goi-mailako Halterofilia Campusean egonaldia ordaintzeko erabili beharko du onuradunak.

Baldintzak eta epaia

Euskadin federatuak eta profesional ez diren halterofiloek eskatu dezakete dirulaguntza hau.

Kirolariak 2010eko abuz-

tuaren 1etik 2011ko ekainaren 30era izan dituzten kirol-arrakastengatik edo parte hartzeengatik puntuak izango dituzte.

Puntuak ez dira gehituko, hau da, maila goreneko lehiaketako puntuak izango dira kontuan.

Honetaz gain, emakumeei 5 puntu gehituko zaizkie. "Emakume gutxi daude halterofilian eta horien artean kirol

hau sustatzeko egin dugu bereizketa hau," azaldu digu Zaballosek.

Hala ere, Lasarte-Oriako alkateak, Lasarte-Oriako kirol-tako batzorde buruak, Tecedor familiak izendatutako ordezkariak eta Euskadiko Halterofiliako Federazioaren ordezkariak osatutako duten epaimahaia erabakiko du dirulaguntzaren onuraduna nor den. "Berdinketa baldin badago, dirulaguntza banatu egingo litzateke" adierazi zuen Lasarte-Oriako alkateak.

Eskaera

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Lasarte-Oriako Udalaren eta Euskadiko Halterofiliako Federazioaren webgunean argitaratuko dira laguntzaren baldintzak.

Horren ostean, eskaera egin nahi dutenek, Lasarte-Oriako Udalaren eskaera orria bete eta horrekin batera, bekaren baldintzetan zehazten diren dokumentuak aurkeztu behar ditu. •

Gimnastikako neskak lanean

LOKEko gimnastika ataleko neskek, aurrebenjaminak izan ezik, larunbatean burutu zuten bere lehenengo entrenamendua.

Maite Rueda, Amaia Calvo eta Naiara Cid dira gimnasti-



kako taldearen arduradunak aurtan ere.

Entrenamenduetako ordu-egia honako hau izango da, ostegun eta ostiraletan 19:00etatik 20:00etara; larunbatetan, benjaminak 12:00etatik 13:00etara eta beste mailak, 12:00etatik 14:00etara.

Arduradunek azaldu dutenez, aurrebenjaminak urriaren 2an hasiko dira eta larunbatetan izango dute bere saioa, 11:00etatik 12:00etara.

Izena emateko entrenamendu orduetan kiroldegira gerturatu edo 676 872 029 telefono zenbakira deitu behar du interesatuak. •

Asoleus taldea irabazle Jesus Perez-El Maño I. Memorialean



Futbol taldeetako kapitainak eta Texaseko ordezkariak Jesus Perezen senideekin.

Texas-Lasartearrak Futbol elkarteak antolatutako Jesus Perez-El Maño I. Memoriale ospatu zen larunbatean Kirol guneko zelaian. Texas-Lasartearra, Usurbil eta Asoleus taldeak lehiatu ziren trofeo eskuratzeko eta azken honek eraman zuen etxera. Herriko taldeak jokaturako bi partidak berdindu zituen, husna Asoleus taldearekin, penaltietan Texas izan zen garaila eta bana Usurbilekin, penaltietan ez zuen zortirik izan Koldo Ageitosen taldeak. Azken partidaren jakin zen trofeoaren garaila nor zen. Asoleus taldeak 2 eta 1 garaitu zuen Usurbil eta Memoriale irabazi zuen. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Iban Mayoz Txirrindulari profesionala

‘Pozik nago, urtero hobetzen ari naiz eta’

■ Lasarte-Oriako ziklistak ez zuen bere lehenengo Tourra amaitzerik izan ■ Saihetsak ia sendatu zaizkio Piriniotan erori eta ia bi hilabetera ■ Denboraldia jada amaitutzat jo du

Iban Mayoz txirrindulariak hiru saihets hautsi zituen uztailaren 19an Frantziako Tourrean Pirinioetako lehen etapan erorita. Ia bi hilabete ondoren, oraindik min edo molestia txikiren bat badu ere, hausturak jada sendatu xamar ditu. Baina jada denboraldia bukatutzat jotzen du. Agian bukaeran lasterketaren batean parte hartuko du.

JON ALTUNA

Tourra beti dela gogorra esan digu Iban Mayozek: Giroaren ondoren atsedeen hartu, ezer ez korritu eta Tourrera ondo ailegatu bazen ere, gero ez zen baldintza onenatan ibili bronkitisa harrapatu zuen eta. Dena den, erorketa-ekin amaitu zen abentura. Gero denbora izan du saihestak sendatu bitartean lasai egon, bizimodu normala egin eta atsedean hartzeko. Telebistatik jarraitzen du egun hauetan Españako itzulia.

Zerk ematen du min gehiago, hautsitako saihestak ala Tourra utzi beharrak?

Biek. Tourra utzi beharrak pena handia ematen du. Baina, horrelako lesio batekin zaudenean, badakizu ezin dela jarraitu.

Garrantzitsuena kasu hauetan sendatzea da, ezta?

Bai hori argi dago, inportanteena osasuna da, ezin denean ezin da eta kitto.

Pirinioetan euskaldun mordo egoten dela jakinik, pena hartuko zenuen lehen Tourrean Pirinioetan ez pasatzeagatik?

Hori da, Pirinioetako lehenengo etapa izan zen niretzat azkena. Orduantxe ari ginen inguratzen etxe aldera, eta bai, pena handia ematen du. Gainera 15. etapa zen, gutxi falta zen,...

Nolakoa izan zen erorketa?

Nik bidoi bat zapaldu, lurrera erori eta atzetik zetorren txirrindulariak bizkarrean eman zidan bere bizikletarekin. Orduan puskatu zitzaizkidan hiru saihestak.

Meritua izan zenuen hala ere; etapa amaitu egin zenuen...

Beti ere saiatzen gara jaiki eta etapa bukatzen, agian kolpea bakarrik izaten da; ezer ez badago hautsita, hurrengo egunean jarraitzeko moduan izango zara. Baina, gero, ospitalera joan eta hiru saihets

hautsita zeudela ikusi genuen eta horrela segitzerik ez zegoenez, etxera.

Txirrindulariak gogorrak zarete gero,...

Gogorrak bai, baina gu ere hausten gara.

Nolakoak izan ziren erorketa-oren ondorengo egunak?

Aurrena ospitalean egon nintzen astebete, pneumonia ere baneukan eta hura kontrolpean izan arte eta gero etxera. Ezer berezirik ez dut egin, bizimodu lasaia egin; saihestak sendatze-ko ez dago ezer egin beharrik, soilik denbora behar du.

Aurtengo denboraldia bukatutzat jotzen al duzu?

Hasiera batean behintzat bai. Agian, akaso, urte amaieran karreraren bat korrituko dut.

Zaila izango da berriro topera jartzea, ezta?

Bai, jada ez du zentzu handirik. Nahiz eta topera jarri ez dago karrerarik.

**Gogorra al da lehenengo Giroa eta gero Tourra egi-
tea?**

Gogorra da, sekula ez nituen bi itzuli egin urte berean eta egia esan ez da erraza bietan maila ona ematea.

Giroan biziago ibili zinen, Italian, ihesaldi gehiagotan sartu zinen, ezta?

Bai. Urte hasieran nire helburua Giroa ondo iristea

zen, Tourra ez zegoen nire urteko egutegian. Gero Giro ona egin eta esan zidaten Tourrera joateko. Beti ere, denboraldi guztiko nire prestakuntza Giroari begira egin nuen eta han ondo ibili nintzen.

Zail eta gogorragoa da Tourra,...

Ez dakit zer esan, kirol aldetik nahiko antzekoak dira bi lasterketak. Diferentzia handia dago, Tourrak eta Giroak mugitzen dutenaren aldetik. Tourrean egindako edozerk kristoren oihartzuna eta ondorioa dauka. Giroan ez da hori hainbeste bizi, oso karrera garrantzitsua da baina ez dago Tourraren konparatzerik alde horretatik.

Tourrean 150 km egin zenuen beste laurekin ihes eginda, etapa hasieratik bukaerara. Une horietan zer pasatzen da burutik?

Beti daukazu helmugara iristeko esperantza, baina etapa

horietan oso zaila izaten da sprinterrek asko kontrolatzen dutelako. Azken kilometrotan ikusten duzu nola tropela gainean dagoela eta gehienetan bezala kilometro gutxi faltan harrapatuko zaituztela.

Eta harrapatutakoan, amorrua, ezta?

Alde batetik pixka bat bai, baina bestalde, badakizu segurua hori gertatuko dela eta amorrua gehiago izaten da beste era batetako etapatan. Uste duzunean ihesaldia seguru iritsiko dela. Ailegatzen ez bada orduan bai ematen du amorru handia. Beste horietan normalean harrapatzea izan da beti.

Eta oso garesti dago gaur egun Tourrean, ihesaldi gutxi iristen dira helmugara?

Gutxi iristen dira eta iristen diren ihesaldietan gainera oso maila handiko txirrindulariak izaten dira. Azken finean Tourra munduko lasterketarik onena da eta han munduko onenek irabazten dute.

Duela urte batzuk euskaldunek urtero etaparen bat lortzen zuten, baina aurten ere ez? Zein iritzi duzu horri buruz?

Aparteko iritziarik ez, hori horrela izaten da, bolada onak eta txarrak izaten dira. Batzuetan irabazten da eta bestetan ez. Askotan gehiegi ibili gabe, suerte pixka batekin karrera irabazten da eta agian Tourrean tropelean indartsu zabilztan arren ez duzu ezer egiten.

Zure lehenengo tourra izan da, zer sentitu duzu? Zure ame-

tsetako bat bete duzu?

Bai, bizikletan hasten den edozeinentzat Tourrera joatea da ametsa eta nik behintzat aurten lortu dut. Zazpi urte eta gero, berandu izan da, baina polita da Tourra korritzea.

Ilusiorik egin al zizun lehena ateratzeak prologoan?

Bai, gauza polita izan zen gainera. Tourra nik hasi dut aurten.

Tourreko lehen liderra beraz...

Bai lider birtuala. Baina oroitzen jarraitzen du zangoa izango du.

Frantziako Tourra hurrengo urteren batean amaitzeko esperantzarik ba al duzu?

Berri itzuli ezkerok bai, noski. Bukatzea ez da horren zaila ez badago eroriko edo gaixotasunik. Ez nuke arazorik izango, baina hiru aste luzeak dira eta beti izaten da zerbaite.

Giro, Tour, Vuelta, ... hurrengo urtetarako zein asmo daukazu?

Oraindik ez dakit zein taldetan izango naizen ere.

Zer gustatuko litzaizuke?

Argi dago Tourrera itzuliko nintzatekeela berriz ere. Tourra da lasterketarik handiena eta txirrindulari gehienek han egotea dute helburu nagusia.

Zer moduz Footon Seretto-n?

Egia esan, ondo. Talde oso berria izan da, lau izan ezik txirrindulari denak berriak ginen. Talde gaztea eta polita. Eta, egia esan, gustura ibili gara.

Zazpi urte txirrindularitza profesionalean... Pozik al zaude egindakoarekin?

Bai, pixkanaka, urtero-urtero hobeto ibili naiz behintzat. Aurreneko urtetik hona ikusi dut hobetzen joan naizela eta hori pozgarria da. •

Iban Mayoz-ek ez zuen Tourra amaitzerik izan Piriniotako lehen etapen erori egin zen eta.



Memoriaren eguna ospatuko da azaroaren 10ean

Osteguneko Udaltzarrean, azaroaren 10ean, Memoriaren eguna ospatzea onetsi zen.

PSOE, PP, EAJ eta LOHPak aurkeztutako mozio bateratuak EB eta H1! alderdien aldeko bozka izan zuten, Ezker Abertzaleko zinegotziak, aldiz, aurka agertu ziren.

Honen bitartez, azaroaren 10ean mozioa irakurriko da, betibizi lorean duen plakaren aurrean lore sorta utziko da eta 15 minutuko isilunera egingo da biktimak gogora ekartzeko.

Hala ere, mozioaren bozka baino lehen, PPko ordezkariak atxikimendu mozioa egin nahi izan zuten. Honetan, egun hori terrorismoaren biktimen memoriaren eguna izendatzea eta ETaren gaitzespena gehitzea eskatzen zuten.

Mozioa sinatzen zuten gainerako alderdiek eta oposizio-koek, ezker abertzaleko bi zinegotzi izan ezik, ez zuten aldekoa onartu. Arrazoiak, batetik aurretik adostutako testua izatea eta, bestetik, Eskal Erkidegoko hainbat erakundeek sinatutakoarekin bat egitea izatea.

Honetaz gain, tentsioa nabaria izan zen, Ezker Abertzaleko zinegotzietatik hitza



Memoriaren egunean lore sorta jarriko da memoriaren mapa irudikatzen duen betibizi lorearen plakaren aurrean.

hartu eta besteak beste, "hori ez da gure memoriaren eguna," "omenaldi hori partziala da, biktima gehiago daude," "biktimen kategorizazioa dakar honek" edo "hau ezarri nahi zaigun modelo baten erudia besterik ez da," adierazi zuten.

Udaltzarreko hainbat zinegotzietatik aterata ahal izan galdetu zuten. Ana Urchueguia alkate ohiak, esate baterako, bere eserlekua utzi zuten.

Aldaketak

Era berean, osteguneko batzarrean, Zabaleta Berriko plan partzialaren aldaketa onartu eta Udalak Behemendin duen ordezkari aldaketa ere onetsi

zen. Era honetara, Rikardo Ortegak zuten ordezkari Martin Morenoren gain egongo da orain.

Herritarren eskaerak

Honetaz gain, alderdi sozialistak aurkeztutako hiru mozio eztabaidatu eta onartu ziren.

Horieta bik herritarren eskaerei erantzuna ematen diete, batetik N-1 autobiarren Madril-Irun noranzkoan zarataren aurkako panelak ipintzea eta bestetik, Urnieta Bidean espaloi bat egitea.

Foru Aldundiaren erantzukizuna direnez, eskaera hauek helaraziko dizkio Udalak.

Era berean, Alderdi Sozialistak Pakistani 15.000 eurotako laguntza humanitaria

bidaltzea aurreikusten bazuen ere, PPko zinegotziak egindako eskaerari erantzunez, 3.000 eurotan gehitu zen laguntza hori.

Ezker Abertzaleko zinegotziak ez ziren ados agertu mozio honekin. "Hirugarren munduko egoera latza da eta lehenengo munduaren interesei erantzuten die," "Pakistanek ez ditu 18.000 euro behar, 18 milioi baizik," "hipokresia galanta da hau," adierazi eta agintariei neurri globalak jartzeko eskaera egin zuten.

Dirulaguntzak

Hau guztiaz gain, Alkateak Jaurlaritzak bi dirulaguntza eman dituela jakin arazi zuten. Dirulaguntzarik ez duten

ohiko gastuetan erabiltzeko, hau da, udal jangela, etab.

Era berean, Hiriber programari esker, Jaizkibel plazako eraberritze proiektuaren %65a, hau da, 386.939 eurotako laguntza lortu du Udalak.

Bestalde, Goiegi Ibarreko Babes Ofizialeko Etxebizitzen eskatzaileen behin behineko onartuen eta baztertuenerrendak argitaratu direla jakin arazi zuten.

Galderak eta eskaerak

Ezker abertzaleko zinegotzietatik zabor tasan akatsa egon eta Donostiari zor zaioren diruari buruz, Somotoko auditoriaren informari buruz eta herriak duen zorrari buruz galdetu zuten.

Alkateak batetik, zabor tasarena FCCren akatsa izan zela azaldu zuten eta San Markori zorra ordainduko zaiola; Somotoko auditoriari dagokionez, enpresa atzeratzen ari dela jakin arazi zuten, eta azkenik, herriaren zorra %4,6a dela jakin arazi zuten, beraz, inbertsiorako maileguak eskatu daitezkeela.

EAJko Iradi jaunak herrian komun publikoak noiz jarriko diren galdetu zuten. Zaballosek Loidi-Barreneko frontoia- ren ondoan bat egingo dela jakin arazi zuten. •

Saneamenduko interzeptorearen lanen azken fasearekin hasi dira Ola kalean

Lasarte-Oria eta Usurbilgo saneamenduko interzeptore orokorraren Zumaburu kaleko bidegurutzetik Ola kaleko 10. zenbakiraino lanak amaitu dira.

Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak azken faseari hasiera emango dio gaur.

Hau Ola kaleko 10. zenbakitik Oria ibairaino doan zatiari dagokio. Horretarako, Erribera kaleko atzeko bidea lehengo zenbakiaren parean itxiko da.

Eremu honetako lanen exekuzioa epea hiru hilabete-koa da.

Zirkulazio aldaketak

Lanek eragin dituzten zirkulazio aldaketei dagokionez, Dorre parkeko lurrazpiko aparkalekuak eta Ola kaleko lehenengo zenbakiko garaieak ohiko sarrera izango dute.



Intertzeptoreko lanengatik Ola kaleko 10. zenbakitik Oria ibairaino itxiko da.

Bestetik, Erribera kaleko atzeko bidea, ibai ondora, Zumaburu eliza atzetik sartuko da eta bi zentzuak mantenduko ditu kale horretako lehenengo zenbakiaren pare- raino.

Kale honen amaiera itxia dagoenez, aparkatzea de- bekatuta egongo da lanak ama- itu arte. Herritar kaltetuek, alternatiba moduan, Ganbo kalean utzi ahalgo dute bere autoa. •

HELDUEN HEZKUNTZA

DBHko ikasketak egin nahi dituztenek azken egunak dituzte izena emateko

Lasarte-Oriako Helduen Hezkuntza Zentroak eskaintzen dituen kurso eta tailerretan matrikula epea irekia dago jadanik.

Era berean, zentroak DBHko ikasketak egin nahi dituzten herritarrei jakin arazten die, izena emateko azken eguna irailaren 16a, osteguna dela.

Edozein kurso edo tailerretan inskripzioa egin edo horiei buruzko informazioa biltzeko Helduen Hezkuntza Zentrora, Zumaburu auzoko eskolako 3. solairura hurbildu behar dira interesatuak. •

GOIEGI IBARRA BOE ZERRENDA

Erreklamazioa egiteko azken egunak

Goiegi Ibarreko Babes Ofizialeko Etxebizitzen eskatzaileen behin behineko onartuen eta baztertuenerrendak Udaletxeko Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko sailean dagoen iragarki- taulan edo Lasarte-Oriako Udalaren webgunean kontsultatu dai- tezke.

Baztertutako herritarrek azken egunak dituzte erreklamazioa jartzeko, irailaren 17ra arte, ostiralera arte, hain zuzen ere. •

KIROLA

Ostadarreko Futbol Eskolako haurrek

Ostadarreko futbol-eskolan izena-eman duten haurrak eta haien gurasoak gaurtik aurrera elkarteko bulegotik, Geltoki kalea 25 zenbakitik pasa daitezke Futbol Eskolako informazioa jasotzera. Bulegoa arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara dago irekia. •

Egunero

Erakusketa

GOIZANE MENDIZABALEN argazkiak izango dira ikusgai. Argazkiek inguruko herritako paisaiak eta txokoak islatzen dituzte. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



Ostirala, 17

Festa

UDAZKEN FESTA ospatuko dute Zabaleta auzoan sardin jana-rekin. Zabaleta auzoan, 20:30etik aurrera.



Familia eta eskolari buruzko hitzaldia

ESKOLA/FAMILIA INTERAKZIOARI buruzko hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta.

ASTEARTEAN, HILAREN 14AN
KULTURETXEAN, 18:00ETAN
GAZTELANIAZ

Ostirala, 24

Kontzertua

BUFFALO taldearen emanaldia. Taldea David Gorospek (baterian) Ander Ederrak (gitarrian) eta Joanes Ederrak (baxuan) osatzen dute. Talde instrumental honek jazz rocka egiten du. Jalgin, 23:00etan, EUSKARAZ.



Larunbata, 25

Azoka

STOCK ETA SALDOEN III. AZOKA antolatuko du Aterpea merkatarri-elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin irailaren 25 eta 26an. Michelingo Udal Kirolguneko pilotalekuan jarriko da azoka herriko hainbat denden eskaintzekin, 10:00etatik 20:00etara.

Larunbata, 2

Jaialdia

LASARTE-ORIAKO VII. AKORDEOI JAIALDIA Zero Setteren eskutik. Jaialdian, Zero Sette orkestrarekin batera Paris-Moscou bikote frantziarra eta Accordion in Moder, Sabadellgo boskotea arituko dira. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean, BIETARA.



Osteguna, 7

Hitzaldia

HITZ EGIN DEZAGUN GALERAZ ETA DOLUAZ HAURREKIN ERE hitzaldia eskainiko du Josune Martiarenak Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea
Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrerzko zintzilakarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrerzko pulsera eta kami-seta beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Elikadura, intolerantzia eta desordenei buruzko hitzaldia

DYAK elikadura, elikadura asaldurak, intolerantzia eta desordenei buruzko hitzaldia antolatuko du. Hitzaldia irailaren 21ean izango da, asteartean, 19:00-21:00 Usurbilgo Alperro Buru 3-Behea zenbakian dagoen "Gure Pakea" izeneko Zaharren Egoitzan.

Edozein argibideetarako 943 46 46 22 telefonora deitu edo posta elektronikoki bat bidali helbide honetara: irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com.

Txokotako argazkiak urrian

Udara honetan, uztailea eta abuztuaren, Ttakun Kultur Elkartek antolatutako txokotan egondako haurren argazkiak jasotzen dituzten CDak eskuragarri egongo dira urritik aurrera Amaraun ludotekan (Ola kalea 1). Argazkien CDA jasotzeko ordutegia honakoa da 17:00etatik 20:00etara.

Intza K.E. Pilota Eskola

Intza Kirol elkarteak gogoratu du alebin eta benjamin mailako haurrek irailaren 16an, ostegunean, dutela lehenengo entrenamendua Villa Mirentxun.

Eskolako gaztetxoek astearte eta ostegunetan 18:30etik 20:30era izango dute entrenamendua.

Intza K.E.ko arduradunek Lasarte-Oriako haur, gazte edo hauen gurasoak Miche-

lingo frontoira hurbildu daitezkeen animatzen dituzte, hilaren 16tik aurrera, izena eman, edozein galdera egin, entrenatzaileak ezagutu edo ikasurtean zehar egingo diren ekintzen berri izateko.

Buruntzaldea I.K.T.

Buruntzaldeko Igeriketa Kirol taldeko neska-mutilek hasi dituzte 2010-2011 denboraldia prestatzeko entrenamenduak Udal Kirolegiko igerilekuan.

Arduradunek jakin arazi digutenez, denboraldi hasieran zehar taldean sartzeko aukera badago oraindik, beraz inor interesaturik geroz, haiekin harremanetan jartzea besterik ez du.

Informazioa nahi duenak 696 506 673 telefono zenbakira deitu, Ruben, edo irailaren zehar 18:00etatik 19:30era kiroldegian Borjagatik galdegin dezala.

LOKEko tenis atala

Lasarte-Oria Kirol Elkarteak tenis atalak jakin arazten du irailaren 13an, astelehena,

lanean hasiko dela 2010-2011 denboraldia prestatzeko.

Ordutegi eskaintza ia zozko bera da. Hala ere, haur eta gaztetxoak, Michelingo Kirol Gunera hurbil daitezke astelehenetik aurrera 18:30etik 20:30era entrenamendu ordutegiak jakin eta arduradunek taldeak sor ditzaten.

Era berean, kirol honetan lehenengo pausua eman nahi dituzten herritarren izena ematea irekia dagoela jakitera ematen dute arduradunek.

LOKEko gimnastika atala

LOKEko gimnastika atalak bihar du bere lehenengo entrenamendua, aurrebenjaminetako neskek izan ezik.

Entrenamenduetako ordutegia honako hau izango da, ostegun eta ostiralean 19:00etatik 20:00etara; larunbatetan, benjaminak 12:00etatik 13:00etara eta beste mailak 12:00etatik 14:00etara.

Arduradunek azaldu dutenez, aurrebenjaminak urriaren 2an hasiko dira eta larunbatetan izango dute bere saioa,

11:00etatik 12:00etara.

Izena emateko entrenamendu ordutegian kiroldegira gerturatu edo 676 872 029 telefono zenbakira deitu behar du interesatuak.

Beltzak-Ostadar Errugby Eskola

Oporren ostean, Beltzak-Ostadar Errugby Eskola igande honetan, goizeko 9:00etan, egingo du denboraldiko lehenengo entrenamendua, Michelingo Kirol Gunean.

Eskolako arduradunek 2002ko abenduaren 31a baino lehen jaiotako haurrei deialdia egiten diete entrenamendura hurbildu eta kirol hau ezagutzeko.

Eskolan izena emateko hiru aukera daude, bata Ostadarreko bulegoan, bestea 666 321 059 telefono zenbakian edo beltzakt.com web orrialdean.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Musikaz gozatzeko asteburua

Rock, blues, metal... estilo desberdinak entzuteko aukera izan da gure herrian Jam sesioa eta Parapetasonik jaialdiari esker.

Ostiraletan, Jalgi kafe antzokian Azkaiter Pelox Bandek rock eta blues emanaldi bizia eta alai eskaini zuen. Taldearen abestiez gain, bertsiio eza-

gunak ere eskaini zituzten ikusleen gozamenerako.

Hauetako batzuk, gainera, oholtzara igo ziren hainbat abestietan ahots lanak egitera.

Parapetasonik

Bestalde, gazte ugari bildu zen larunbata arratsalde eta gauean, Parapetasonik jaialdian.

Parapetoko gaina kontzertu gune bihurtu zen. Gazteek giro onean anfiteatroan eta zelaian estilo desberdinez, rock, metal edo hard-core estiloetaz gozatu zuten zortzi talderen eskutik

Taldeen abestiek, zein bertsiioek Parapetoko gunea musikaz bete zuten gaueko ordu txikiak arte. •



Azkaiter Pelox Bandek eskaini zuen rock eta blues jam sesioan hainbat herritarrek parte hartu zuten.



Parapetasonik jaialdiako taldeei esker, ederki gozatu zuten rock, metal edo hard-core estiloen jarraitzaileek. Argazkian, Zephyr talderen emanaldia.

SUGATE SUKALDEAK



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

VEGASAREKIN %15 EKO DESKONTUA!

SALAGALA

ZATOZ ZURE DISKOTEKA BERRIA EZAGUTZERA!

GIRORIK HOBERENA LAGUNARTE PAREGABEAN!

Ostiraletan

Salsa (sarrera dohainik 00:30ak arte)

Larunbatetan

17:30ean areto dantzak eta musika zuzenean
23:30ean diskoteka

Irailaren 25ean Festa erotikoa striptisarekin (gizon eta emakume)

Igandetan

17:30ean dantza eskolak eta animazioa
Fermin eta Nataliaren eskutik (salsa, merengea, cha cha cha...)
Areto dantzak 21:30ak arte.

Galarreta Jai-Alai Frontoia • Hernani 20120 • Tel.: 943 333 116 • www.sala-gala.com